

Ordizian, **2009ko urriaren 22an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Jose J. Lopez fernandez jauna	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK

Maialen Galparsoro Odriozola andrea	EB-Berdeak/Aralar taldea
Monica Marañon Basarte andrea	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Iñigo Manrique Cia jauna	PP taldea

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea



BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2009ko uztailaren 24ean egindako Osoko bilkuraren akta onartzea.
..... **4. orr.**
- 2.-Maialen Galparsorok karguari uko egitea, jakinarazpena.
..... **5. orr.**
- 3.-2010 urteko ekitaldirako Ordenantza Fiskalen Aldaketaren behin-behineko onarpena.
..... **5. orr.**
- 4.-Kreditu gehigarrien kontuak onartzea, jakinaraztea.
..... **9. orr.**
- 5.-Euskal Autonomia Erkidegoko herri erakundeentzako Jardunbide Egokien Eskuliburura (DBLO) atxikipena.
..... **11. orr.**
- 6.-2010 urteko ekitaldirako auto-taxi tarifaren aldaketa onartzea.
..... **14. orr.**
- 7.-Mahaitxoeren Ordenantza behin betiko onartzea.
..... **15. orr.**
- 8.- Bake Epaille titularren eta haren ordezkoreen izendapena.
..... **16. orr.**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK

GORABEHERAK

Patxi Uranga jauna azaldu da "Oiangu Bizirik" plataformakoa.

GALDE-ESKEAK

- .- Kreosotaren inguruan IKENGUri emandako aginduei buruzko informazioa eskatu du.
- .- Ezker Abertzaleko kideen atxiloteta dela eta Bozera maile Batzordea osatzeko IU/EB-ARALARek egindako eskaera
- .- San Juango Babes Ofizialeko etxebizitzak lortzeko erroldatzeko irizpideen inguruan IU/EB-ARALARek jarritako kexa.
- .- Iragarkien ordenantzari buruzko informazio eskaera
..... **18. orr.**



ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 8,10 h.

BUKAERA ORDUA: 9,45 h.



Bilkurari hasiera eman ondoren eta Eguneko Gai Ordenarekin hasi baino lehen, Alkate jaunak lokal honetan, GAZTE LEKUAN egingo den azkeneko bilkura izango dela adierazi du, hurrengoa bere ohiko tokian, Udaletxean bertan egin ahal izango baita.

Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak.

1.-2009ko uztailaren 24ko akta onartzea

Proposamena

2009ko uztailaren 24ko osoko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3,EA 2, PSE-EE (PSOE)2,EB-Berdeak/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentziak: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Batzordeburuak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:



2.-Maialen Galparsorok karguari uko egitea, jakinarazpena.

Proposamena

UKO EGITEA.- EB/BERDEAK/ARALAREk aurkeztutako 2009ko urriaren 13ko idatziaren berri ematen da, Maialen Galparsoro Odriozolak Udal honetako zinegotzi karguari uko egiten diola adierazten duena.

Jon Ayestaran Aranburu jaunak, Marisol Viana Alvarez andreak eta Koldo Azurmendi Ayerbek zerrendako 6,7 eta 8 zenbakiei uko egin dietela ere jakinarazten da.

Alderdi politikoak 2007ko udal hauteskundeetan egindako zinegotzi akta kontuan hartuta Julian Carrasco Obregón jauna proposatzen da kargurako.

AKORDIO PROIEKTUA

Osoko Bilkurari MAIALEN GALPARSORO ODRIOZOLA andreak zinegotzi karguari uko egiten diola jakinaraztea eta Jon Ayestaran Aranburu jaunak, Marisol Viana Alvarez andreak eta Koldo Azurmendi Ayerbe jaunak ere uko egiten diotela jakinaraztea.

JULIAN CARRASCO OBREGON jauna EB/BERDEAK/ARALAR alderditik Udal honetako zinegotzi izendatzeko proposamena egitea,

Honako erabakia Hauteskunde Batzorde orokorrera bidali proposatutako hautagaiaren izendapena egin dezan.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

Maialen Galparsorok, EB/Berdeak-Aralar koalizioko zinegotziak, arrazoi pertsonalak direla eta, zinegotzi karguari uko egin diola jakinarazi dio osoko bilkurari.

Zerrendako 5. hautagaia , Carloz Gonzalez Astiz jauna dela azaldu du, osoko bilkuran dagoena, eta Carlos Gonzalez jaunak adierazi du ez dagoela ados bere alderdiak Galparsoro andrearen postu hutsa betetzeko Hauteskunde Batzorde Nagusiarekin eta Udalarekin burutu duen prozedurarekin.



Idazkari andrea

Berak burutu duen prozedura azaldu du, aurretik Hauteskunde Batzorde Nagusiari kontsulta egin diola azaldu du eta legeak dioenaren arabera jokatu dela.

Carlos Gonzalez jauna

Bere jarrera azaldu du: Bere alderdiak Galparsoro andrearen uko egitea manipulatu eta erabili duela uste du, uztailean egin zuen uko egiteko agiria, eta ondorioz Julian Carrasco Obregonen izendapen proposamena hurrengo osoko bilkurara atzeratzeko eskatu du, Batzorde Orokorrak egiaztatu dezan noiz aurkeztu zuen Galparsoro andreak karguari uko egiteko agiria publikoki.

Osoko Bilkurak Gonzalez jaunaren eskaera onartu du.

Gai hau zintzilik geratu da hurrengo osoko bilkurarako.



Presazko bidetik sartutako hurrengo gaiaren berri eman du Idazkariak:

3.- EB/Aralarko Mikel Leunda jauna Galparsoro andrea ordezkatzeko izendapena egitea.

Idazkari andrea

Lehenik eguneko gai-ordenan puntua sartzea bozkatu behar dela adierazi du, eta gehiengo osoa behar du.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3,EA 2, PSE-EE (PSOE)2,EB-Berdeak/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Alkate jaunak ondorioz, gai hau presazko bidetik sartzea onartutzat eman du.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Alkate jauna.

Jarraian Alkate jaunak adierazi du Mikel Leunda jaunaren izendapena proposatzen dutela osoko bilkurarako, Udaleko Batzorde, kontseilu edo erakundeetan Galparsoro andrea ordezkatu dezakeen koalizioko zinegotzi bakarra delako, karguari uko egin dion zinegotzia ordezkatzeko bitartean.

Leunda jauna honako batzorde eta elkarteetako kide eta aholkulari izango da:

- .- Gai Arrunten Batzordea
- .- Osoko Bilkurako Gaien Batzordea.
- .- Ordizia Lantzen SA
- .- Taldeko bozeramaile.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaraturakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, EA 2, PSE-EE(PSOE)2, EB/ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentziak: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

4.2010 urteko ekitaldirako Ordenantza Fiskalen Aldaketaren behin-behineko onarpena.

Proposamena

Alkate jaunak 2010eko udal tasa eta zergen inguruan aurkeztutako proposamena ikusita, gai eztabaidatu ondoren 2009ko urriaren 14n egindako Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean eta uztailaren 5eko Gipuzkoako Herri Ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Arauan jarritakoa betez, honakoa proposatzea adostu zen:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- 2010 urteko ekitaldian aplikatzeko, behin-behinean onartzea.



- A) ORDENANTZA FISKALAREN 1. ERANSKINAREN ALDAKETA, UDALARRIAN ONDASUN HIGIEZINEN ZERGAK ARAUTZEN DITUENA.
- B) ORDENANTZA FISKALAREN 3. ERANSKINAREN ALDAKETA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGAK ARAUTZEN DITUENA.
- C) ORDENANTZA FISKALAREN 5. ERANSKINAREN ALDAKETA, HERRI BARRUKO LURSAILEN BALIOA HANDITZEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA
- D) 6. ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINAREN ALDAKETA, ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO EKINTZAK BURUTZEAGATIK TASAK ARAUTZEN DITUENA
- E) 7. ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINAREN ALDAKETA, TOKI EREMU PUBLIKOAREN APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK EDO ALDEBAKARREKO ERABILERAGATIK TASAK ARAUTZEN DITUENA.

2.- Ordenantza Fiskalen aldaketa jendaurrera zabaltzea iragarki taulan edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, Udalak ebatziko dituenak. Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

Proposamenari hasieran zerga batzuen igoera erantsi zaiola esan du, baina asteburu honetan prentsa bidez jakin ahal izan da datorren urterako Foru Funtza aurreikusitakoa baino altuagoa izango dela, eta beraz, zabor tasarena izan ezik, %8 igoko dela, beste zergak izoztu egingo dira datorren urteko ekitaldirako.

Hori guztia ikusi ondoren, proposamena aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

Proposamena

1.2010 urteko ekitaldian aplikatzeko, behin-behinean onartzea.

- A) ORDENANTZA FISKALAREN 3. ERANSKINAREN ALDAKETA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGAK ARAUTZEN DITUENA.**

Oinarrizko kuoten aldaketa gertatzen bada, aplikazio adierazleetan ez da aldaketarik izango.



B) 6. ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA, ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO EKINTZAK BURUTZEAGATIK TASAK ARAUTZEN DITUENA

ZABORRAK BILDU ETA EZABATZEA

	Euro/urteko
Etxebizitza pribatu hutsa	55,90
Etxebizitza pribatu okupatua	74,54
4 langile baino gutxiago dituzten denda edo establezimenduak, baita industria txikia ere.	164,70
4 langile edo gehiago dituzten denda eta establezimenduak orokorrean	270,55
Janari dendak eta jakirik gabeko tabernak	224,69
Jakiak dituzten tabernak (ogitartekoak, plater konbinatuak, pintxoak etab,) eta 5 langile baino gutxiago dituzten jatetxeak	367,55
5 langile baino gehiago dituzten jatetxeak eta 3 langile baino gehiago dituzten janari dendak	1.020,90
10 langile baino gehiago dituzten industriak Udal Administrazioarekin hitzartu.	
Udalari eskatutako zerbitzu bereziak Udal Administrazioarekin hitzartu.	
Kultur eta kirol elkarteak (gastronomikoak)	367,55
Pubak	367,55
Pagosa	2.702,17
Eroski	8.569,69
Bulego profesionalak edo antzekoak	111,84

MATERIAL ALOKAIRUA

Karpe erabiltzea m2/eguna (*)	1,30
-------------------------------	------

(*)- 2 egun deskontatuko dira (muntaketa egun bat eta kentzeko beste bat, beti ere erabilera egunekin bat egiten ez badute)

- Erabilera aste betez luzatuz gero, hiru egunez erabiliko balute bezala kobratuko da.



DOKUMENTUAK ATERATZEA

Dokumentuen konpultsa	Aurreneko 5 orriengatik	0,00 euro/orriko
	<i>Gainerako orriengatik</i>	0,15 euro/orriko

C) zenbakiko Ordenantza Fiskalaren eranskinaren aldaketa, toki eremu publikoaren aprobetxamendu bereziagatik edo aldebakarreko erabileragatik tasak arautzen dituen.

ERANSKINA

ESPALOI ETA IBIEN BIDEZ IBILGAILUEN SARRERA LURSAILETARA

	<u>Euro</u>
Espaloi eta ibien bidez ibilgailuen sarrera lursailletara	
Ibilgailuko, 5 ibilgailu arte	20 euro
Ibilgailuen sarrera	
Ibilgailuko, 5 ibilgailu baino gehiago (*)	10 euro
Ibiak, metro lineal bakoitzeko /urtean	45 euro

Tarifak aplikatzeko arauak

1. Norbanakoentzako edo talde batentzako garaje pribatuen kasuan, aplikatu beharreko tarifa normala edo %100ekoa izango da.

2. Sarrera eskatzen duten ibilgailu mota ere kontuan hartuko da. Zerga hau aplikatzeko garaian bi mota bereizten dira:

Lehenengo taldean autoak, furgonetak, eta 2500 kilo gainditzen ez dituzten gainerako ibilgailuak sartzen dira multzo honetan.

Bigarren taldean merkantziak edo bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak sartzen dira, baimendutako gehieneko karga 2500 kg baino gehiagokoa denean, kasu honetan aplikatu beharreko tasa ibilgailuak lokalera sartzeko espaloia zeharkatu behar dutenean %25 haziko da.

3. Sarrerek zoladura jaitsita dutenean egokitzapen berezi bat dutenean edo materialak desberdinak direnean %25eko igoera bat izango dute dagokion kontzeptuan, lokalera sartzeko espaloia zeharkatu behar denean.

4.- Espaloia zeharkatu gabeko sarrera Tarifarekin lotutako %50eko hobaria jasoko du.

Ezohiko espaloia zoladuraren beharrezko izango duen espaloia izango da, egokituta dagoena, material desberdinak dituen edo sarrera errazteko espaloia moztuta duena.



Espaloirik gabeko sarrerak izango dira eraikinaren izkinetan daudenak, kale bukaerakoak

5.Sartzeagatik kuota Lursail bakoitzean ate bat baino gehiago izanez gero, sarrera bakoitza kontuan hartuko da kuotak doitzeko garaian, erabilera aldi baterako denean beti ere, eta beti beste sarrera bat izango balitz bezala kontuan hartuko da.

6.Kuotak urtekoak izango dira. Hala ere, administrazioko kudeaketa lanak arintzeko Udalak hiru hilean behin edo beste segidaren batean kobratzeko edo beste ordainagiri batzuekin batera edo bera bakarrik kobratzeko eskumena izango du

7.Ibilgailu kopurua zehazteko garajejan sartzen den ibilgailu kopurua hartuko da kontuan.

8.Ibiaren titularrak Udalak ematen dion ibi-plaka jarri beharko du, ezarritako kopurua ordaindu eta gero.

(*) Bost ibilgailu baino gehiago egonez gero, lehenengo bostek 20 euro ordaindu beharko dituzte ibilgailuko eta gainerakoek 10 euro ibilgailuko.

2.Ordenantza Fiskalen aldaketa jendaurrera zabaltzea iragarki taulan edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, Udalak ebatziko dituenak. Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Txurruka jauna

OHZ benetan jaisten ari dela adierazi du.

Dokumentuen konpultsa, lehenengo bostak dohainik egingo dira.

Krisiari dagokionez, laguntza hobarien bidez bideratu zaie (hazi egin dira) egoera zailean egon daitezkeen pertsoneri.

Esne-makinak %95eko hobaria izango du.

Asenjo jauna

Bide publikoa okupatzeagatik kobratzen den tasa edo prezio publikoa beste herri batzuekin alderatuta oso baxua dela adierazi du. Bere taldeak %10eko igoera proposatu du. Oso baxuak izaten jarraitzen dutela uste du.



Alkate jauna.

Ostalaritzakoek eta tabernakoek ere prezioak ez dituztela garestitu esan du eta Udalak tasak izoztea sektore honekiko keinu bat dela adierazi du, eta krisian daudela hauek ere.

Dubreuil jauna

Txurruka jaunak erantzun dio herritarren sarreren tarte zehazteke dagoela (orain dauden tarteei besteren bat gehituta) eta baita bizikidetzaren unitateko kideen kopurua ere, hobariak finkatzeko garaian.

Gaur egun hobariak uraren eta zaborren tasetan eta kiroldegiko tasetan aplikatzen dira.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

5.Kreditu gehigarrien kontuak onartzea, jakinaraztea.

Kreditu gehigarrien kontuak onartzea, jakinaraztea.

377, 424, 429, 460, 461, 484, 517, 541, 565, 579, 692, 695 zbkidun Alkatetza Dekretuak jakinaraztea.



Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

Kreditu gehigarri desberdinen berri eman du, kopuru desberdinekin eta horien xedeak azalduz

Maiza andrea

Hizkuntza Eskola Ofizialean gastu bezala elektrizitatea eta garbitasuna azaltzen direla esan du. Obraren garbitasun lanak obra egiteko esleitutako enpresak egin du, SUKIA CONSTRUCCIONESek, eta eguneroko garbitasuna Eusko Jaurlaritzak egiten du, eta esleitu dio lan hori UNI 2 enpresari

Beraz, aurrekontuetan aurreikusitako energia elektrikoaren 5000 € eta garbitasuneko 5.000 € soberakinetara joango dira.

Alkate jauna.

ATTEST eta KONFIARI esleitutako zerbitzuak 6.000 € eta 9.000 € hurrenez hurren aurreikusi gabe zeudela adierazi du.

Alotza Hartzaindegirako 50.000 € dira.

Ikurrina berria, aurrekoa nahiko hondatuta baitzegoen, 446 €ko kostua du.

P.21i dagokionez, obren gastu guztiaren eta 90.000 € arteko aldeak dakarren gastua onartzen da, 2008ko aurrekontuetan aurreikusita zegoen bezala.

Irisgarritasun obrak eta Urdaneta Ikastetxeko frontoia estaltzea, baja izan dute, beraz gastatu ez dena Diruzaintzako soberakinetara joango da.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak



6.Euskal Autonomia Erkidegoko herri erakundeentzako Jardunbide Egokien Eskuliburura (DBLO) atxikipena.

Proposamena

Azken urteotan gure gizartea izaera pertsonaleko datuak babesteko beharra ikusita, prozesu batean sartu da; administrazio publikoek datu horiek ditugu, eta horren barnean guztiok ditugu datu horiek; hori dela eta, babes hori inoiz behin baino gehiagotan eskatu behar digute, batez ere izaera pertsonaleko datuen informazioa gaizki tratatzeak ekarri dezakeen arriskua ikusita.

Komunikazio eta informazio teknologien garapena ikusita, datu pertsonalak lortu eta horiekin tratatzen laguntzen diguten heinean, pertsonen intimitatearentzako arriskua sor dezakete. Beraz, izaera pertsonaleko datuen kontrolak eta babesak lehentasun osoa du. Pertsonak bere datu pertsonalen gaineko kontrola izan behar dute, bere erabilera eta xedeei dagokionez, bere duintasunari kalte egin diezaiokkeen erabilera saihesteko.

Datu pertsonalen tratamenduaren barruan, pertsonen eta familien duintasun eta intimitate babestea eta bermatzea gaur egun herri administrazioaren legezko betebeharra da. Hori dela eta egoki ikusi da Ordiziako Udala Euskal Autonomia Erkidegoko herri entitateentzako Jardunbide Egokien Gidara atxikitzea, izaera pertsonaleko datuak babesteko EUDELek onartutakoa da, Tipo Kode moduan. Pertsona fisikoen inguruan dugun informazio pertsonalaren konfidentzialtasuna bermatzen laguntzen digu, baita fitxategiak, tratamendu guneak, ekipoak, sistemak eta programak segurtasunez gordetzen ere. Izaera pertsonaleko datuen tratamenduan gabiltzanoi ditugun beharrak ikusten ere laguntzen digu, gure eguneroko lana datuen erabilera egokiarekin uztartu dezagun.

Ondorioz, Ordiziako Udaleko Osoko Bilkurak honakoa onartu du:

“1º. Ordiziako Udala datu pertsonalak babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko herri erakundeentzako Jardunbide Egokien Eskuliburura atxikitzea onartzea, EUDELek Tipo Kode bezala onartua, bere xedea Udal zinegotziei eta langileei informazioa errazteko gida praktikoa izatea da, herritarrekin duten harremanetan datu pertsonalen tratamenduari dagokionean ahalik eta hobekien jokatzeko.

2º. Atxikipen hau borondatezkoa da eta datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen legedia betetzeko Ordiziako Udalak duen beharrari kalte egin gabe burutzen da, Jardunbide Egokien Eskuliburuko edukiak betetzera behartzen du.

3º. Gure Udalean Jardunbide Egokien Eskuliburua betetzeko xedearekin, Idazkaritzak honako erantzukizunak izango ditu: prozedurak egokitzeko beharrezkoak diren lanak, herritarrek ARCO eskubideen erabilera burutzeko formularioak eta gure erakundeko errealitateari dagozkion eranskinetako ereduak, urte beteko epean.



4º. Ana Urkizu Kerejeta datu pertsonalen babeserako koordinatzaile izendatzea, Ordiziako Udalaren eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren artean.

5º. Ordiziako Udalak informazio eta formazio ekintzak etengabe burutzeko planak egiteko konpromisoa hartzen du, eta datu bereziak edo babes handia behar duten datuak erabiltzen dituztenek lehentasuna izango dute, baita erakundean zerbitzua eskaintzen dutenei Jardunbide Egokien ESKuliburuan aurreikusitako dekalogoia eskaintzea ere, datuak babesteko oinarriko arauen inguruan sentsibilizatzeko helburuarekin, herritarren eskubideak eta datu pertsonalen babesean Udalaren betebeharrak bermatzeko.

6º. Ordiziako Udalak Jardunbide Egokien Eskuliburuan jartzen duena betetzen dela egiaztatzeko prozedura onartzen du, eta ez betetzeagatik zehaztuta dauden ere onartzen ditu.

7º. EUDELI jakinaraztea datu pertsonalak babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko herri erakundeentzako Jardunbide Egokien Eskuliburura atxikitako herrien zerrendan ere Ordiziako Udala ere sartzea onartu duela.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

EUDELekin Datuak babesteko Euskal Agentziarekin eta Foru Aldundiarekin sinatutako Hitzarmenaren berri eman du, Administrazio Publikoek DBLO betetzera bultzatzeko dena.

Gainera ATTEST aholkularitza agentzia Udala antolatzeko lanetan hasi dela jakinarazi du.

Beraz, ideia bi norabide horietan lan egitea da.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentziak: 1 (EB-BERDEAK/ARALAR 1)



Maiza andrea

Esan du testua EUDELena edo Foru Aldundikoa den ziur ez dakiela, eta testu honek euskara ezkerretara lehenengo tokian doala errespetatzen duela, baina arauak diola letra larriagoan joan behar duela

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

7.2010 urteko ekitaldirako auto-taxi tarifaren aldaketa onartzea.

Proposamena

Emilio Fernandez Fidalgok aurkeztutako idatzia, Taxien Gipuzkoako Elkarteko (AGITAX) Lehendakari gisa, 2010eko taxien herri barruko tarifak aztertzeo eskaera egiten du, eta jarraian zehaztutakoak dira:

2010EKO HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTUA	BANDERA JAITSIERA	IGAROTAKO KILOMETROA	ITXARON ORDUA
1* TARIFA	3,0841	0,9655	18,4414
2** TARIFA	3,0841	1,5398	28,9839
5*** TARIFA	3,8551	1,9247	36,2298

*Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da 7:00etatik 22:00etara.

**Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. II tarifa aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara igandeetan eta autonomia erkidegoko eta udalerriko dagokion arautegian finkatutako jai egunetan, eta larunbatetan:

*** Aplikazio ordutegia: Ostiraleko 22:00etatik larunbateko 7:00etara. Larunbateko 22:00etatik igandeko 7:00etara. Herriko jai-eguneko edo jai-egun bateko bezperako 22:00etatik herriko jai-eguneko edo jai-egun bateko 7:00etara. Herriko jai-eguneko edo jai-egun bateko 22:00etatik hurrengo eguneko 7:00etara.

Autotaxia erabiltzearen Azterketa Ekonomikoaren berri eman da, AGITAXek aurkeztu du tarifen igoera justifikatzeko.

Gaur egun indarrean dauden herri barruko tarifak, 2008ko urriaren 16ko osoko bilkura bidez onartuak, honakoak dira:



2009EKO HERRI BARRUKO TARIFAK					
1* TARIFA			2** TARIFA		
Gutxieneko Tarifa gutxienekoa	Ibilbideko KM.	Itxaron Ordua -	Gutxieneko Tarifa gutxienekoa	Km Ibilbideko KM.	Itxaron Ordua -
3,0841	0,9655	18,4414	3,0841	1,5398	28,9839

*Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da 7:00etatik 22:00etara.

**Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da 7:00etatik 22:00etara. II tarifa aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara igaldeetan eta autonomia erkidegoko eta udalerriko dagokion arautegian finkatutako jai egunetan, eta larunbatetan:

Honakoa ikusita, Udaleko Osoko Bilkurarako Gaiien Batzordeak honakoa proposatu du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.2010 urteko ekitaldirako auto-taxi tarifaren aldaketa onartzea, azalpenean jartzen duenaren arabera.

2.Goiekiri akordio honen berri ematea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

2010erako taxi tarifen proposamenaren berri eman du. Lehengo tarifak izozten dira, baina tarifa berri bat sartzen da (5. tarifa) ostiral gauek igande gauera (gauekoak eta jaietakoak) eskaintzen duten zerbitzuaren prezioei dagokiona izango litzateke.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB-Berdeak/Aralar)



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

8.Mahaitxoan Ordenantza behin betiko onartzea.

Proposamena

Terrazak eta mahaitxoak bide publikoan jartzea arautzen duen Udal Ordenantza onartzeko tramitatu den espedientearen berri eman da, udaleko osoko bilkuran behin-behineko onarpena izan duena 2009ko martxoaren 26an.

Jendaurrean erakusteko epean, 2009ko apirilaren 23ko argitaratutako 74 zenbakiko GAOko iragarkian eta Udaleko Iragarki Taulan, alegazioekin bi idatzi aurkeztu dira, bat Ignacio Pinto Arruabarrenak eta bestea Mertxe Fernandez Mendiak aurkeztutakoa.

Aurkeztutako alegazioak ikusita, eta Zerbitzu Delegazioak hasierako onarpena eman zaion testuari zenbait ohar egin eta gero, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1. Ignacio Pinto Arruabarrenak eta besteek eta Mertxe Fernandez Mendiak mahaitxoak jartzeko eta kentzeko ordutegiari buruz egindako alegazioak kontuan hartzea.**
- 2. Ordenantzaren 17 artikuluko d) paragrafoaren edukia argitzea eta berriro idaztea.**
- 3. Ignacio Pinto Arruabarrena eta besteek egindako gainerako alegazioak kontuan ez hartzea, establezimenduetako jabeen erantzukizuna baita mahaitxoan ordena mantendu eta bizilagunei kalterik ez eragitea, eta baita lizentziaren edukia, edo mahai, aulki eta espazioari buruzko baimena errespetatzea.**
- 4. Ondorioz, Ordenantzaren ondorengo artikulua aldatzea, eta honela geldituko dira idatzita:**

- 9 artikulua, 4. paragrafoa.

“Mahai eta barriaren diametroa, gehienez 80 zmkkoa izango da. Ogitarteko eta plater konbinatuak zerbitzatzeko baimena duten establezimenduen kasuan, baimendutako gehienezko luzera 1,20 zmkkoa izango da, betiere 4 metroko distantzia errespetatzen bada.

- 15 artikulua:

Jarduera nagusirako zehaztuta daukan ordutegia kontuan hartu gabe, terraza eta mahaitxoak erabiltzeko ordutegia honakoa izango da:



Bide publikoan mahaitxoak jartzeko ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 8:30
- larunbata, igande eta jai-egunetan: 09:00

Bide publikoan mahaitxoak kentzeko ordutegia:

Udan:

- Lanegunak: 24:00
- Jai bezperak: 01:00

Urteko gainerako garaietan:

- Lanegunak: 23:00
- Jai bezperak: 01:00

Udako garaia uztailaren 1ean hasi eta Euskal Jaietako igandean bukatuko da.

- 17 artikulua, d) paragrafoa.

Ez jaso mahai eta aulkiak bide publikotik bertan sakabanatuta utzita.

- 18.1 artikulua. a):

Arau-hauste arina: Ordenantza honen arau-hausteren bat harrapatuz gero, ahoz jakinaraziko zaio dagokionari. Arau-haustea errepikatuz gero, 90 eurotik 300 eurora bitarteko isuna jarriko da.

5. Hasierako onarpena izan duen akordioa behin betiko egitea aipatutako aldaketak sartu eta gero.

6. Ordenantzaren testua osoa argitaratzea GAO n.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo jauna

Ordenantzaren hasierako onarpenaren berri eman du, baita jendaurrean informazioa zabaldu deneko faseren berri ere, orain behin betiko onartzea dagokio.



Orain arte gai honetan hutsune bat zegoen eta orain arautu egingo da, ostalaritzakoen, herritarren eta oinezkoen interesak batzen eta defendatzen saiatuta.

Gaia arautzeko orduan beste interes batzuen aurretik jarri da segurtasunarena, oinezkoentzako espazio publikoak lehentasuna baitu.

Jendaurreko informazioa zabaltzeko fasean alegazioak aurkeztu direla jakinarazi du, bat baino gehiago kontuan hartu da.

Asenjo jaunak pertsonalki eskaera bat egingo lieke tabernariei, beraien interesez gain besteenak ere kontuan hartzeko eta denen interesak bilduko lituzkeen elkarte bat sortzeko gonbidapena egiten die, eta horren alde lan egiteko.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

9.- Bake Epaile titularraren eta haren ordezkoreen izendapena.

Proposamena

Gaur egungo Bake Epaileak (titularra eta ordezkoa) izendatu zirenetik 4 urte igaro direla eta epea amaitu dela jakinarazi da.

Honekin batera 2009ko irailaren 7an 168 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kargu hauek betetzeko eskaerak aurkezteko epea irekitzeko ediktua argitaratu zela jakinarazi da.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101 artikuluan eta ondorengoetan eta 1995ko ekainaren 7ko Bake Epaileen Arautegian zehaztutakoaren arabera.

Honakoa ikusita, Udaleko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak honakoa proposatu du:



AKORDIO PROIEKTUA

1. JUAN IZTUETA IRISARRI eta SHELLY GALLINA FOSTER Bake Epaille titular eta haren ordezeko izendatzeko proposatzea.

2. Akordioaren kopia Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusira bidali, izendapena egiteko.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Osoa

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

- Bake Epaille titularren eta haren ordezekoaren proposamenaren berri eman du, eta gehiengo osoa behar duela jakinarazi du.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

10. Galde-eskeak

"Oiangu bizirik"eko Patxi Uranga jaunak golf zelaian kreosotaz tratatutako egurrezko posteak kentzeko IKENGUri egindako eskaerak nola dauden jakin nahi izan du.

Alkate jaunak erantzun dio esanez azken eskaeraren epea orain bukatu dela edo bukatzeaz dagoela eta eskaera betetzen ez badute golf zelaia itxi egingo dutela.



Uranga jaunak adierazi du bere garaian obra hauek Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergan hobariak jaso zituztela, eta ez duela batere ongi ikusten hau.

Udalak Oiangurenen dagoen gatazka ezagutzen duela esan du. Uranga jaunak itxiera agintzen denean berari jakinarazteko eskatu du, "Oiangu Bizirik"eko ordezkari den neurrian.

.....

Leunda jaunak adierazi du aste honetan bertan Alkate Jaunari Bozeramaileen Batzordea biltzeko proposamena egin diola Batasuna eta LAB (ezker abertzalea)eko azken atxiloketa politikoak salatzeke. Ez du erantzunik jaso eta antzeko egoeretan Batzordea bildu izan dela jakinarazi du.

Osoko Bilkurari bere taldeak proposatutako eta Udaleko talde guztiek ezagutzen duten testua edo adierazpena bozkatzeko eskaera egin dio.

Alkate jaunak honetaz Maiza Andrearekin hitz egin duela esan dio, baina denbora faltagatik ezin izan duela gobernu taldea bildu, baina bidali diela testua zinegotzi guztiei.

Dubreuil jaunak adierazi du botere judiziala ez dutela kondenatuko. Jardun judizialak testuingurua, frogak, zantzuak kontuan hartuta epaitu behar direla esan du, eta okerrik egon bada zuzendu beharko direla.

Besterik gabe, instituzioaren boterea kondenatzea instituzioan esku-sartzea eta berarekiko desleialtasuna iruditzen zaio. Beste alde batetik adierazi du ez diotela testua eman, ez duela ezagutzen eta hemendik aurrera bidaltzeko eskatu du.

Leunda jaunak barkamena eskatu dio testua ez bidaltzeagatik eta berriro gertatuko ez dela ziurtatu dio.

Lehenik eguneko gai-ordenan puntua sartzeko bozkatu behar dela adierazi du, eta gehiengo osoa behar du.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 1)

Kontrako botoak: 2 (PSE-EE (PSOE))

Abstentzioak: 0

Ondorioz, Alkateak puntua eguneko ordenan sartzeko eskaera atzera bota du.

Alkate jaunak Leunda jaunari adierazi dio testua Bozeramaile Batzordean aztertuko dela.

.....



Leunda jaunak adierazi du Ordizia Lantzen SAko Administrazio Batzordean San juaneko Babes Ofizialeko etxebizitzaren esleipenerako erroldatze irizpideak aztertu zirela, eta nahiko haserre dago berak proposamen bat egin nahi izan zuelako eta Gobernu Batzordeak irizpideak alde aurretik finkatu zituen bere harridurarako ezin izan zuelako ezer egin.

Oposizioa "ezabatzeko" beste ekintza bat iruditu zaio.

Adierazi du Herri Araubidearen legearen arabera herri administrazioa eta gobernua Udala osatzen duten Alkate eta zinegotziei dagokiela ezartzen duela. Beraiek ere 565 bozketen ordezkariarekin zinegotzi direla adierazi du. Umiliatu dituztela sentitzen du.

Gehiengoa gobernu taldea dela badaki baina erabaki aurretik beraien proposamenak entzun behar dituztela uste du. Gutxieneko errespetua eskatzen du.

Alkate jaunak esan dio Gobernu Batzordeak landu zuela proposamena eta Administrazio Batzordean gaiak hitz egin ondoren hartu zela kontuan Leunda jaunaren proposamena.

.....

Leunda jaunak iragarkiei buruzko Ordenantza onartzeko prozedura nola doan galdetu du Ordenantza gobernu taldeari komeni zaion bezala aplikatzen dela uste du.

Ordenantza ez bada bete behar, bere ustez ezin zaio inori betetzeko eskatu.

Alkate jaunak erantzun dio behin betiko onartu behar dela eta laster egingo dela.

Alkateak uste du karteak eta pankarteak herria desitxuratu egiten dutela eta herria garbi mantendu behar dela.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak osoko bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta bik behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.